



KABALKADA ZINTZARROSA

2014 URRUNA



KABALKADA ZINTZARROTSIA 2014 URRUÑA



ATALPEN HISTORIKOAK

Erdi Arotik datorren usaia da, Europa osoan zabaldurik izan dena. Garai zaharretan senar-emazteen gatazkak, alargunen arraezkontzak eta gisa horretako gaiak ziren plazan horrelako ekitaldiaren bidez salatzen zituztenak. Euskal Herrian, gainerako herrietan bezalaxe, ohitura hau biziki sustraiturik zegoen. Europan gehien erabili zen izena Charivari da. Euskaldunok tokiaren araberako ize-naz bataiatu genuen. Xaribari hitza ohikoa izan dugu zazpi euskal herrietan, baina horretaz gain izen ainitz erabili ditugu: Tobera-munstra, astolasterra, galarrotsa, zintzarrotsa, karrusa... Gizarte giristinoaren autozentsura modukoa zela aipa genezake, hau da, moral giristinoaren aurkako gertakizunak edota ekintzak salatzeko eta herritarren aitzinean zigortzeko balio zuten besta kutsuko sasiauziak. Barregarriak zirenez gero herri xeheak biziki maite zituen, eta gehienetan gazteak izaten ziren horrelakoak antolatzen zituztenak.

Herriaren arau moralak hausten zituzten zorretan zeudela uste zuten gainerako herritarrek, eta horregatik horrelakoak antolatzeari ekiten zioten, ainitzetan inolako gupidarik gabe. Tobera edo horrelakoetarako hautatuak zirenek jende aitzineko sasiauzi haien sahestu zitzaketen gazteei sosak emanez edota antolatzailak arno trago batera gonbidatuz.

Fitsik ez bazuten ordaintzen egoerak okerrera jotzen zuen eta gaueko toberak antolatzen zituzten pertsona horien leihu azpian. Garrasiak, tuta edota zintzarri soinua eta horrelakoak egiten zituzten herriko guztiak horren berri ukantzen zituzten. Hilabete oso bat iraun zezakeen. Amaitzeko, herriko plazan alegiazko epaiketa bat egiten zuten, jujea, abokatak, lekuokoak eta guzi. Bertsolariek ere giroa berotzen zuten sujetari buruzko bertso barregarriak kantatuz.

Auziaz gain, dantzak eta kantek ere sekulako garrantzia zuten horrelako ekitalditan. Ibilaldi modukoak antolatzen zituzten sujetaren etxetik epaiketa egin behar zuten plazaraino eta bukatzean, gauza bera baina alderantziz. Sarritan zaldiak, astoak edota

zalgurdiak erabiltzen zituzten. Hauek dira kabalkadak. Kabalkadetan parte hartzaileak ibiltzen ziren talde zenbaitetan banaturik: bolantak, kaskarotak, andere xuriak, zapurraq, banderariak...

Erdi Arotik zetorren usai honek Ipar Euskal Herrian Bigarren Gerla Handira arte iraun zuen. Orduko gizartea aldatua zen eta ez zuen begi onez ikusten horrelako salaketa publikoak egitea, hori dela eta, agintari zibilek debekatu egin zituzten. Azken tobera klasikoa Irisarrin 1937. urtean egin zutena jotzen bada ere, jakin badakigu, geroxeago ere zenbait tokitan gaueko toberak egin zituztela, Itsasun adibidez, Bigarren Gerla Handiaren garaian egin zuten, eta jakin dugunez aski bortitza gainera. Garazi aldean, berriz, gairik gabeko kabalkadak antolatzeari ekin zioten, eta gaur egun, oraindik ere, horrelakoak antolatzen jarraitzen dute Arnegin, Uharte-Garazin, Izpuran Luzaiden, Baigorriin...

1950. urtetik aitzina tobera berrien tenorea etorri zen, Luhuson, Makean... gaia ez zen garai bateko salaketa moral hura, alegiazko gaien inguruko epaiketa baizik. Gaia aldatua zen, baina egitura guziak bere harten jarraitu zuen: dantzak, kantak, bertsoak, kabalkadak, pertsonaiak... 1970. urtetik aitzina boterearen aurkako toberak antolatu zituzten. Adibidez, 1974. urtean Iholdin zegoen aintzira proiektu baten kontrako tobera antolatu zuten. Joera berri honek tobera arrapiztu eta indartu zuen. Hortik aitzina horrelako kabalkada-tobera ainitz antolatu ziren, Baigorriin 1976an, Eiheralarren 1988an, Amikuzen 1991n ...

Lapurdiko barnekaldean eta Baxenafarroan toberak izugarri indartu ziren, eta herri ainitzek antolatu zituzten, Itsasun (1992, 1994, 1997, 2001, 2007 eta 2012) , Lekornen (1995, 1996), Luhuson (2002)... baita auzoa den Heleta baxenafarrean ere (2003). Itsasu izan da tobera-munstra gehien egin duena, bost urtetan behin-edo egin izan duelako. Iaz, Irisarrik sekulako kabalkada eskaini zuen, bi saiotan, eta Itsasuk ere besta kari biziki tobera ederra eskaini zuen agorilaren 18an. Toberaren arrapizte hau barnekaldean gertatu da, kostaldetik urrun.

PROIEKU BERRIA

Urruñan aspaldian zegoen horrelako bat egiteko gogoa, eta azkenean, Hazia eta Bertoli elkarteeak junta edo biltzar bat egiteko deia egin zuten. Jadanik proiektua herriko kultur elkarteei azaldu zaie, eta orain arte, jarrera ona jaso duela erran beharra dago. Iraileko bestak igaro ondoren, bigarren bultzada etorri da. Herritarrei dei egin zaie parte har dezaten eta batzordeak edo komiteak antolatzen ari dira: sosak bilatuko dituena, arropak eginen dituena, dantzariak prestatuko dituena, kantak onduko dituena, testua idatziko dutenak, publizitateaz eta zabalkundeaz arituko direnak eta abar.

Urruñarren asmoa horrelako kabalkada eta epaiketa irrigarri moderno bat egitea da. Pertsonaien artean kaskarotak, zirtzilak, sorginak, arrantzaleak, laborariak, herriko jaun-andereak, entseñariak, makilariak, dantzariak, jujea, abokatak, apeza, bestagorriak, artxeroak, jendarmak, zaldizkoak, astoak, eta ziganteak atera nahi ditugu. Beraz, badugu jende beharra hori dena egin ahal izateko, osora 150-180 lagun inguru beharko ditugu horrela banaturik: kabalkadako pertsonaiak: 50 lagun inguru, dantzariak 60 inguru, josleak 30 inguru, antzezleak 20 inguru, musikariak 25 bat inguru.

Izen bat hartzeko orduan gure zalantzak izan ditugu, tobera hitza gaur oso atxikirik ikusten baitugu Lapurdiko barnekaldearekin eta Baxenafarroarekin, nahiz eta garai zaharretan zazpi lurralteetan erabili izan den, hori dela eta zintzarrotsa hitza hautatu dugu inor mindu ez dadin. Zehazki ez dakigu noiz izan zen gure herrian egin zen azkena, baina badirudi, Urruñan, Lapurdiko kostalde osoan bezala, azken kabalkada-toberak XIX. mendearen erdi aldean jokatu zirela. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dugu 1949. urtean Baxenafarroako herri batek tobera jokatu zuela Urruñako plazan, eta arrakasta handiaz gainera.

Urruñarrok lan handia dugu bizkar gainean. Denon artean egiten dugu, dudarik ez, baina lehena denez, bi urteko epea hartuko dugu ongi antolatzeko. Auzo eta adin guzietako urruñarrei dei egiten diegu proiektu honekin bat egin dezaten. Urruña herri euskalduna da, eta euskal usaiak atxiki nahi ditu. Guzion artean bi urte hauetako bidea eginen dugu, urruñarren arteko ezagutza eta adiskidetza zabalduko ditugu, eta 2014ko ekainan kabalkada eta zintzarrots bi emanaldi ederrak eskainiko ditugu. Geroak erranen.

Urruñako Kabalkada-Zintzarrotsa
Urruña, 2013ko Urtarrila.



PRESENTATION HISTORIQUE

Cette coutume moyenâgeuse étendue dans toute l'Europe avait pour but de dénoncer des comportements considérés amoraux. Citons par exemple les déboires conjugaux et les remariages de veufs ou veuves.

Au Pays Basque cette tradition était très ancrée et prenait différents noms suivant les régions :

Tobera, Astolasterra, Galarrotsa, Zintzarrotsa, Karrusa...

Nous pouvons considérer qu'il s'agissait d'une critique de comportements non conformes à la morale édictée par le catholicisme.

Le peuple était friand de ces saynètes qui étaient, le plus souvent, organisées par les jeunes.

Il était considéré que ceux qui transgessaient les règles morales en vigueur devaient être montrés du doigt, aussi organisait-on ce genre de satires dépourvues de toute commisération.

Les personnes prises pour cible pouvaient échapper à la moquerie publique en donnant de l'argent aux jeunes ou en leur offrant à boire.

Ceux qui ne jouaient pas le jeu, agravaient leur cas et des charivaris nocturnes étaient organisés sous leur fenêtre. Des cris, des sons de cornes et de sonnailles ameutaient tout le village. Cela pouvait durer un mois entier et, pour parachever l'histoire une sorte de procès se tenait sur la place. Des bertsularis pimentaient l'événement en traitant les sujets avec humour.

Au delà du procès, les chants et les danses avaient une grande importance dans ces célébrations.

On organisait une procession allant de la maison de l'accusé à la place, puis dans le sens contraire après le procès. Souvent des chevaux, des ânes et même des diligences grossissaient ces processions composées de danseurs, dames blanches, portes drapeaux...d'où l'appellation de cavalcade.

PROJET

Dans nos provinces basques du nord cette coutume a persisté jusqu'à la seconde guerre mondiale. Les mentalités changeant, les dénonciations publiques n'étaient plus vues d'un bon œil et les pouvoirs publics les interdirent. Si le dernier charivari classique recensé a eu lieu à Irissary en 1937, nous savons que quelques autres se sont déroulés durant la guerre 39/45, notamment un assez violent à Itxassou.

Du côté de Garazi les cavalcades de nuit ont continué sans charivari , et, aujourd'hui elles perdurent à Arnegi, Uharte-garazi, Is-poure, Luzaide, Baigorri.

Après 1950 , le temps des nouveaux charivaris est venu : Louhossoa, Makea...le contexte n'est plus le même , des thèmes généraux sont abordés bien que la structure soit conservée.

Depuis 1970 les charivaris ont pris les pouvoirs publics pour cible. Pour exemple la dénonciation du projet de lac à Iholdi en 1974. Cette nouvelle tendance a redynamisé la création de charivaris : Baigorri en 76, St Michel en 88, Amikuze en 91...

En Labourd intérieur aussi nous assistons à un nouvel essor : Itxassou (1992, 94, 97, 2001, 2007 et 2012) , Mendionde (1995, 96) Louhossoa (2002). Nous soulignerons la constance d'Itxassou avec une fréquence moyenne de 4 ans.

Cette année Irissary a été le théâtre d'une magnifique cavalcade et le charivari du 18 août à Itxassou n'a rien eu à lui envier.

Tout cela s'est passé loin de la côte.

A Urrugne, l'idée circulait depuis un bon moment jusqu'à ce que les associations Berttoli et Hazia prennent les choses en mains et décident de passer à l'acte.

Le projet a été présenté aux différentes associations et la plupart ont adhéré.

Après les fêtes patronales, un nouveau cap est franchi, les habitants sont appelés à participer et les groupes se constituent: confection des habits, création des chants, répétitions des danses, écritures, textes, recherche de fonds, etc...

L'idée est de faire à Urrugne une cavalcade et un spectacle modernes et distrayants.

Entre autres, kaskarots, sorgins, pêcheurs, agriculteurs, notables, enseignants, makilaris,géants, clergé, gendarmes, cavaliers seront mis en scène.

Il y aura entre 150 et 180 participants répartis de la manière suivante: personnages de la cavalcade :50 ,danseurs:35,couturier(e)s : 30, acteurs :20, musiciens: 25.

Au moment de choisir le nom, nous devions faire face à un dilemme. TOBERA étant aujourd'hui très utilisé à l'intérieur du Labourd et surtout en Basse Navarre, nous sommes remontés dans le passé et choisi "Zintzarrotsa" afin de n'indisposer personne.

Nous ne savons pas lorsqu'à eu lieu la dernière cavalcade sur la côte, mais il est à souligner qu'en 1949, un village de Basse Navarre a été invité à produire son charivari à Urrugne et a connu un grand succès.

C'est une grande tâche et nous allons l'accomplir avec l'aide de tous les Urrugnars. Toutefois, comme c'est une première en ce siècle, nous nous donnons deux années pour la mener à bien.

Nous invitons les habitants de tout âge et de tous les quartiers à prendre part au projet. Urrugne est une ville basque et il est important de garder nos coutumes. Nous allons renforcer les liens et l'amitié qui doivent nous unir en tant qu'habitants de la même commune; et, en juin 2014, nous allons donner deux représentations de notre cavalcade et notre charivari.

Urruñako Kabalkada Zintzarrotsa
Urruña, Janvier 2013

